

HIK ERABAKI BEHAR DUN

Marc Egea

Eusk: Ele txera

CONCHITA: Laztana, ez didan galdetu behar. Nik familia osoaren iritziaren aurka aukeratu ninan hire aita. Eta zoriontsu izan naun. Hi izan hintugun. (*Epeltasunez irribarre egiten du*) Hire bizitzako gizona dun? Ba, aurrera, zer esango dinat nik: berrogei urte ditun, jada ez haiz umea... Nondik zatozan zalantzak, bihotza? Hik pentsatzen dunanaz edo jendeak hitz egiten dinanaz? Ez kasurik egin jendeak esaten dinanari. Hire kabuz pentsatu. Higan pentsatu. Gizon horrekin ezkontzeak zoriontsu egingo dinala esaten dun? Bada, kito. Horrek bakarrik din garrantzia. Nik bazakinat benetan maite dunala. Beti maite izan dun. Hamar urte hituenetik. Gizon horrengatik behartu hidan izena ematen dantzan, gogoratzen haiz, zalantzan hengoela lotsa handia ematen hidalako eta nik hiregatik erabaki ninala? Seguru, aurpegira begiratzen dionanean, oraindik ere ikusten dunala "Dantzaren erregeak"-ko Martin Sharpe, edo "Nirekin dantza"-koa . Zer esango dinat nik? Zoriontsu egingo hauela uste badun, aurrera. Nik hire zoriona besterik ez dinat nahi, alabatxo (*Adeitsuki irribarre egiten du*). "Ekaitza hegoaldeko itsasoetan"-ko Marley kapitainarekin ezkonduko haiz, "Lore-ukabilak"-ko Jack Balantzearekin, "Xake koroari"-ko printze erbesteratuarekin... Gizon zoragarria, zalantzarik gabe. Ezin izango hau erregina bihurtu, ez dun hiregatik ring egingo, ez hau hegoaldeko itsasoetan belaontzi batean nabigatzera eramango ere, eta ezingo hau dantzatzer atera. Laurogei urte baino gehiago ditin, dagoeneko. Baina Martin Sharpe dun oraindik, Hollywood-eko mitoa, berrogei urte baino gehiagoz mundu erdia maitemindu zinana. Eta oraindik badin begirada xarmangari hori. Eta begirada horrekin, hitz egiten ez badin ere, hi aukeratu hau. Harekin ezkondu nahi dun? Ez zagokidan erabakitzea... ez legokioken erabakitzea ere, ospitale horretan erditu berri dinan amari berrogei urte barru haurrarekin izango dunan harremanari buruz... berarekin maiteminduko bahintz. (*Harritu egiten da*) Begira zer adibide axolagabe esanarazten dizkidan! Alabatxo, ez galdetu, hik erabaki behar dun.

OHARRAK: Esandakoaren kontra, **CONCHITAK** erabaki nahi du. Beti egin du. Ama posesiboa eta kontrolatzailea da. Hala ere, alabaren esku uzten duela

Ele txera
Hondatuak zabaltuz



HIK ERABAKI BEHAR DUN

Marc Egea

Eusk: Ele txera

dirudi diskurtsoak. Baina ez da hala. Eta argi geratzea nahi du. Batez ere amaieran.

*Behin baino gehiagotan argudiatzen du bere alaba erabakia hartzeko adinakoa dela ("berrogei urte ditun"). Egia esan, gogoan du denbora horretan guztian ez dela inoiz erabaki garrantzitsurik hartzeko gai izan (gizon batekin elkartetik hasita). Orain ez da desberdina izango. Eta aurkezten den kasuan, gainera, adin-arazo nabarmen bat dago: gizona zaharregia da harekin harremana izateko. Eta asmo guztiarekin, **CONCHITAK** adibide iruzurti eta faltsu batekin erakusten du (hautxoaren adibidea), baina ziur aski oso eraginkorra izango da.*

*Azken batean, alabak bere kontrolpean jarraitzea nahi du **CONCHITAK**. Gauzak aldatzeko itxaropen oro burutik kendu nahi dio. Eta hori guztia, noski, ontasun, maitasun, samurtasun eta konplizitate kutsuarekin egiten du. Ama on batek egingo lukeen bezala, bere alabaren ongizatean pentsatzen du, ez norberarengan.*

Ele txera
Hundiarde zabaldiaz

